

## BIZITZAK BUELTA ASKO EMATEN DITU

Duela hamalau urte , ohikoa ez den gauza bat gertatu zen Bartzelonan. Literatura lehiaketa bateko sari banaketa batean lehenengo postuan berdinketa izan zen. Bikote irabazleak irabazitako sariaren erdia GKE bati ematea erabaki zuen eta beste erdiarekin oporretara joatea, biak elkarrekin, mundutik barna. Kontinente guztiak zeharkatu zituzten eta kontinente bakoitzean hainbat leku ezagutu: Amsterdam, Mosku, Paris, Hawaii,... Bidaia horretan Maria eta Iñaki maitemindu egin ziren. Oso zoriontsu izan zirenez eta oso gustora egon zirenez biak elkarrekin , elkarrekin bizitzera joatea erabaki zuten, Nafarroara. Herri polit eta lasai batera mudatu ziren. Ez zen herri handia, kilometro koadro bat baino ez zuen, baina hainbat eskola eta parke zituen, inoiz haurrik izatea erabakiz gero. Atarrabia zuen izena. Bere mediku propioa zuen, eta gainera, Iñakiri lana eskaini zioten metal fabrika batean, Atarrabian bertan.

Urte batzuk geroago, Iñakik eta Mariak alaba eder bat izan zuten. Maddalen jarri zioten izena, Mariak oso gustuko baitzuen izen hori. Begi handiak zituen, urdin-urdinak. Beleak bezain ile beltza eta aho txiki xamarra. Eder-ederra zen eta oso alai. Irribarretsua zen eta gurasoek asko maite zuten. Oso gustuko zuen lagunekin soka saltoan, pilotan nahiz txirrindulan parkean jolastea.

Gainerako umeak bezala, Maddalen hiru urterekin eskolara joaten hasi zen. Ez zuen arazorik izan, kontent-kontent joaten zen egunero eskolara amarekin, aita lanean zegoelako . Eskolatik atera eta gero etxerako lanak egiten zituen (plastikako marrazkiak margotu, amarekin batera liburuxoak irakurri...) aita lanetik itzuli arte .

Urteak joan urteak etorri, Maddalen heltzen joan zen eta zailtasunik gabe egin zuen aurrera mailaz maila, edukiak behar bezala ikasita. Gero eta lagun gehiago zituen eta bere kuadrilla handitzen joan zen. Iñakiri, bere aitari baina, gauzak ez zihoazkion nahi bezala lanean. Metal fabrikan gero eta ordu gehiago lan egin behar zuen eta diru gutxiagotatik. Lanez aldatzea ere pentsatu zuen, baina ez ziren aldaketetarako garairik onenak.

Gero eta zailagoa zen lana aurkitzea, leku guztietan antzera baitzebiltzan. Horregatik, Iñakik metal fabrian gelditzea erabaki zuen egoera horretan egon arren. Baina egoerak okerrera egin zuen, eta azkenean nagusiak fabrika itxi egin behar izan zuen. Gainerako langile guztiak bezala, Iñaki langabezian geratu zen.

Iñakik etxera iritsi zenean emazteari kontatu zion gertatutakoa. Maddalena bitartean, bere logelara zegoen etxerako lanak egiten. Baina gosetuta zegoenez, sukaldara abiatu zen. Bidean gurasoak egoeraren larriaz hitz egiten entzun zituen, aita kalean gelditu zela baina beste lanbide bat aurkitzen saiatuko zela. Maddalena triste baino tristeago jarri zen, eskolan entzun zuelako lan munduan gauzak oso itsusi jarri zirela eta jendea etxegabetzen hasi zirela alokairuak ordaindu ezin zituztelako. Eta pentsatzen hasi zen: Zer egingo dugu hori gertatzen bazaigu? Non egingo dugu lo? Nik ez dut Atarrabiatik joan nahi! Zer gertatuko da nire lagunekin? Eta galtzen baditut... Maddalena denbora luzez aritu zen hausnarrean. Azkenean gurasoei ezer ez esan eta zer gertatzen zen jakin arte horretaz gehiago ez pentsatzea erabaki zuen.

Hurrengo egunetan, Maddalena gurasoak urduriago sumatu zituen, urduriago eta triste xamar. Nabaritzen zen une gogorak igarotzen ari zirela. Larunbat ilun batean, Maddalena gurasoek Maddaleni egia kontatzea erabaki zuten. Maddalena ez jakinarena egin zuen, baina ezin izan zien malkoei eutsi. Gurasoek Maddalena nola jarri zen ikustean, ez kezkatzeko esan zioten, etxe horretatik joan beharko bazuten ere, aurkituko zutela besteren bat. Eskola berean jarraituko zuela eta lagunak ez zituela galduko. Gurasoak entzutean, Maddalena hobeto sentitu zen eta horretaz ez zuela berriro pentsatuko hitz eman zion bere buruari.

Eta horrela gertatu zen. Urtebete geroago, Iñaki eta bere familia bankuak etxetik bota zituen, kale gorrira. Iñakik eta Mariak oso gaizki hartu zuten gertatutakoa Maddalenaengan izan zezakeen eraginak ere kezkatzen baitzituen. Baina harrituta gelditu ziren Maddalena gertatutakoa nahiko ongi hartu zuela ikustean.

Bizilagun eta lagun askok jakin izan zuen gertatutakoa eta, familia bat alaba batekin kale gorrian uztea bidezkoa ez zenez, protesta egitea erabaki zuten. Etxegabetzea egunkarrietan atera zen eta, horren ondorioz, etxegabetzeen kontrako plataforma baten belarrietara iritsi zen gertatzen ari zena eta familiari laguntzea erabaki zuten. Plataformari eta familiaren abokatuei esker, epaileari familiaren egoeraren berri eman zioten. Hilabete batzuk geroago, epaileak arrazoi eman zien eta egoera konpondu arte beraien etxea ematea erabaki zuen. Iñaki, Maria eta Maddalena

oso pozik jarri ziren, baina batez ere Maddalen, bere ingurukoekin eta ohiturekin jarraitu ahal izango zuelako.

BETI esperantza izan behar da, bizitzan ez baitaude momentu txar eta zailak bakarrik. Esker onekoak izan behar dugu eta daukaguna gozaten ikasi. Eta eskerrak eman momentu zailtan zurekin dauden pertsoneri .

Benetako ekintzetan oinarritua

EKHI